

OIHALETXEA: ikasleen gida

Elorri Falxak, "Azterketak euskaraz"eko kideak, euskararen egoera oihaletxe bat bezala irudikatzen du. Gurea dugun hori gal ez dadin, kanpotik datozkigun etengabeko erasoei erantzunez bizi garela dio, gure "oihaletxea" sendotzeko astirik gabe.

- Bat egiten al duzue Elorriren deskribapenarekin?
- Nolakoa da euskararen egoera zuen inguru hurbilean?
- Zure ustez, jasotzen al du erasorik euskarak?

"Azterketak euskaraz" kolektiboa 2021ean sortu zen nahiz eta lehenagotik, baxoa euskaraz aldarrikatzeko mugimendua bazen. Brebetaren inguruan ere hitz egiten da dokumentalean.

- Ba al dakizue zer diren baxoa eta brebeta?
- Zuen eskolatzea amaitu bitarteko azterketak euskaraz egiteko aukera izango al duzue zuek?
- Ikasketa guztiak euskaraz egin ondoren, azterketak euskara ez den beste hizkuntza batean egitera behartuko bazintuztete, nola sentituko zinatekete?

Oneka eta Aitzolek dokumentalean aipatzen duten bezala, 2021ean, Baxoko [filosofiako azterketa](#) euskaraz erantzun zuen Baionako Bernat Etxepare lizeoko ikasle talde batek, azterketak zuzenduak izango ez zirela jakin arren eta ekintza honek, beraien emaitzetan eragina izango zuela jakitun izanik. Azterketaren lehen zatian euskaraz ikasteko euren eskaria berretsi zuten frantsesez, eta ondoren euskaraz erantzun zituzten idatzizko galderak.

- Horrelako egoera baten aurrean, prest egongo zinatekete modu honetako desobedientzia ekintza bat egiteko?
- Azterketako zuzentzaileek iruzkin desatsegin eta mingarriak egin zizkieten beraien azterketetan. Nola sentituko zinatekete horrelako mezuak jasoko bazenituzte?

Azterketak euskaraz pasatzeko eskubidea aldarrikatzeko proiektua martxan jarri zuen ikasle talde batek, Bordeletik Baionarako bidea bizikletaz eginez.

- Zein iritzi duzue proiektuaren inguruan?
- Parte hartuko zenukete horrelako ekimen batean?
- Nola uste duzu sentitu zirela proiektuan parte hartu zuten ikasleak?

Dokumentalean aipatzen den bezala, duela 30 urte baxoa frantsesez pasa behar izaten zuten eta gaur egun, egoerak berdin dirau. Aldaketarik egon ez bada ere, gauzak lortzeko borrokatu egin behar dela aipatzen da.

- Ados al zaude adierazpen honekin?
- Azterketak euskaraz kolektiboko ikasleen nortasunean, egoera honek izan al du eragin positiborik? Zer ikasi dute borroka honetan? Zein balore jaso dituzte?
- Zer egiteko prest zeundekete honelako bidegabekeria baten aurka borrokatzeko?

Euskara salbatzeaz gain, euskal kultura biziarazten jarraitzeko etorkizuneko euskaldun eraldatzaile eta eragileak behar ditugula dio Mañolok, Estitxu Robles Arangiz kolegioko zuzendariak, eta honen alde inplikatzeko eskatzen diete ikasleei.

- Oihaletxeak zutik iraun dezan, zer egiteko prest zaudete zuek?